

LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2025-06-09

BILERA ZENBAKIA: 6

ORDUA ETA LEKUA: 17:30 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Bihotza (Gizarte Langilea), Maddi eta Maider.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

Bileran bi gai landu dira batik bat, harrera eguna eta etxebizitza.

Harrera eguna:

Gonbidapen denak luzatu dira. Herrian 44 errolda berri ditugu, guztira 26 familia unitate. Asistentzia konfirmatu ahala hizkuntza eskakizunen berri edukiko dugu. Aurreko urteetan bezela udaletxeko plazatxoan elkartuko gara eta Iñakik (alkateak) agurra egingo die eta harreran nondik norakoak azalduko ditu. Talde argazkia eta oinez soziedadera abiatuko gara. Bidetik markesinetako mapen berri emango diegu eta bidean ditugun toki esanguratsuen aipamena egingo dugu. Merienda soziedadean izango da, tortillak eta bestelakoak.


Ordizian harrera gida dute eta instituzio publikoko dirulaguntza jasotzen dute. Honen inguruko informazio gehiago edukitzeko bertako arduradunari galdetzea adostu dugu (Ainara).

Etxebizitza:

Urretxun laguntza juridikoa martxan dago; beste herrietan zertan ari diren jakitea interesatzen zaigu.

Alokabiden akordioa sinatzeko prozesuan Eusko Jaurlaritzak proiektua eta eskakizunak zehazten ditu, adibidez formazioa. Eta gizarte langileek zalantza egiten dute "hirigintza" beraien ardura ote den. Herriko arkitektoaren ardura da ala gizarte langilearena. Uztaila hasieran hirigintza eta ongizate, bien arteko bilera izango da, eta zalantzak zalantza bi batzordeen arteko koordinazioa ezinbestekotzat jotzen dugu.

15,000€ ko aurrekontua kalkulatzeko da etxebizitza bakoitzeko igogailuaren lanketarako.



Etxe berriak eraikitzea da hirigintza eta ongizate batzordeen bileran aipatu zen beste puntu bat. Plan ezberdin posibleei buruz mintzatu ziren, urbanizazioa esaterako. Etolur enpresarekin harremanetan jartzea baloratu dute; izan ere, 2,000 biztanle baino gutxiago duten gipuzkoako herriei aholkularitza zerbitzua eskaintzen die.

Bestelakoak:

Ikasturte bukaerako merienda antolatu dute eta ongizate batzordeak gonbidapena jaso du, Bihotza joango da ordezkari gisa.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
E.H. mapa		Maiden
Soziedadean abisua eman		Maiden
Errolda berrien zerrenda eta hizkuntza eskakizunak		Bihotza
Iñakiri (alkateari) azaldu harrera hasiera		Erkuden
Merienda enkargatu eta prestatu		Maiden
Balorazio dokumentua Bihotzari bialdu		Maiden
Gidako aldaketak Erkudeni jakinarazi		Maiden
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: uztailaren 7an, 18:30etan, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.		